


Alexander Lopez Lasa

D maila • 2 saria

Kostaldean bizi ez banaiz ere, gogoko ditut itsasoari buruzko istorioak. Balea eta bale-ontziz eta egunsentiko argiarekin arrantzatzeraz irteten diren arrantzaleei buruz hitz egiten duten istorioak ... Getariko kaian hamaika arratsalde igaro ditut arrantzaleei begira, bai eta itsasontzien joan-etorriari ere. Aurten itsas-gizon horiei buruzko istorio bat idatzi dut. Lehengo DBH bukatuko dudan uda honetan, Getarira bueltatuko naiz eta itsasontzi eta itsas gizonei begira geratuko naiz aspaldiko lez.

Mila esker nire aita eta amari itsasora eta itsasoa gerturatzeagatik.



HERRI ARRANTZALE BATEAN...

Ni kostaldekoa naiz, mendia eta itsasoa elkartzen diren herri batekoa. Bertan zeru grisa eta euria dugu lagun ia urte osoan zehar, neguan lanbro eta udan itsas enbata moduan. Horregatik gure herria inguratzen dituen larreak berde eta distiratsu daude beti eta askotan zaila da larreetako kolore berdea eta itsasokoa bereiztea.

Nire etxeko ganbaratik San Anton mendiko itsasargia ikusten da. Nire aitonaren aitonaren aitonaren aitonaren garaitik zutik dago tontorrean, eguzkia ezkututzen denean, bere argiaz itsas ontziak etxera bidean gidatzeko ...

Elizako kanpandorrea ere ikusten da etxetik, baina ez da kanpai soinurik entzun aspaldi eta hori seinale ona omen da amamaren iritziz; izan ere, nire amamak ederki ezagutzen du kanpai-hots bakoitza: hildakoena (orain eskelak jartzen dira atarian), jaioberriena eta itsas istripuren bat gertatuz gero jotzen den kanpai soinua. Ordura arte entzun gabeko soinua. Gure aita ere hemengo da, arrantzalea, katiuska luze, artilezko txano eta txamarra handiz janzten den arrantzalea. Bizitza erdia itsasoan pasa duen gizona da nire aita.

Aiton-amonak ere hemengoak dira, arrantzaleak baita ere. Ama galiziarra da, Koruñako herri batekoa, hain zuzen. Amaren aita arrantzalea zen, baina hezurretako gaitz batek jota erretiroa goizegi heldu zitzaion eta familia aurrera ateratzeko, gure herrian ireki berria zen Azkuetarren atun kontserba industrian lan egitera etorri beharra izan zuten bere bost seme alabarekin.

Azkuetarrek arrantzarako hamar bat itsasontzi zituzten garai hartan, baina bere semeek ez zuten batere gogorik itsasoko bizitza gogorra jasateko eta Madrilera bidali zituzten ikastera. Gero, bueltatu zirenean, atun ontziak ekarritako arrantza kontserbatzeko fabrika ireki zuten eta gizon emakume asko etorri zen gure herrira lanera.

Azkue sendiak berak jarri zion etxebizitza gure amaren familiari, hilabeteko jornal zati baten truke. Etxea iluna eta hezea zen nonbait eta, bost seme-alaba izanik, argi elektrikoa jartzeko dirurik ez zuten... Horrela ba, aitaren gurasoek, beraien eskuzabaltasuna erakutsiz, olio lanpara eskutan, hiru semeak bidali zituzten etxetxo hartara. Gure aitak, ama ikusi bezain pronto, neska hura bere emaztea izango zela jakin zuen. Aurrerago, herritarrak jasotako diruaz, argi indarra jartzea lortu zuten arren, etxe hartara olio lanpara eramaten jarraitu zuen. Eta San Antongo elizaren aldarera nire ama eraman zuen arte ez zuen etsi.

Nire herriak usain berezia du, arrain eta itsasontzi erregaiaren kiratsa, alde batetik, eta gatzaren eta itsasoaren berezko usaina, bestetik: kresalarena esango nuke.

Usain hau kalez kale zabaltzen da, etxez etxe eta sukaldez sukalde. Gure arropak ere usain hori dauka ...baina ohituta gaude.

Nire herriko elizako zorua aldapan behera dagoela gauza jakina da herritar guztiontzat. Alkatearen esanetan, elizaren azpitik pasatzen zen lurpeko ibai batek harriak higatu eta elizako zutabeak poliki-poliki okertuz joan dira urteen poderioz. Aitorren amonak zioenez, bere birraitonaren aitonaren lehengusuak kontatutako istorioaren arabera, bale batek urperatu arazitako itsasontzi baten patroiairen semeak, balearen bihotza atera, kutxa batean sartu eta San Antongo eliza azpian lurperatu omen zuen. Geroztik bihotz gabeko balearen arima alde batetik bestera dabil bihotzaren bila eta bere mugimenduak lurrikara txikiak sortzen ditu elizako zutabeak mugituz.

Kondaira hauek guregan izugarrizko eragina izan zuten eta abentura irrika piztu. Gainera apaizari galdetu eta “zer izpiritu eta izpiritu ondoko... Hobe Izpiritu Santuan pentsatuko bazenute!” erantzun zigunean, gure jakin mina bikoiztu egin zen.

Horrela ba, eliza azpialde hartan zer gertatzen zen ikertzekotan gelditu ginen, balearen arima aurkitu eta eliza salbatuko genuelakoan...

Maiatzeko bigarren igandea jaunartze eguna zen nire herrian. Azkuetarren bilobaren jaunartze eguna besteren artean. Elizaren aurreko bankuetan umeak zeuden eserita eta gurasoak atzealdean. Emozioak jota Azkuetarren emaztea poltsatik mukizapia ateratzera joan zen, baina perlazko eskumuturrekoa kateatu zitzaion eta hautsi. Perla guztiak lurrera erori ziren, aldarerantz ihesi, eta aldarearen alfonbraren azpian zegoen burdin sare batean zehar galdu ziren.

Nire lagunak bata besteari begiratu genion “Hortxe dago sarrera...” esan nahian bezala.

Astelehenean, ilundu bezain pronto, elizara sartu, burdin sarea altxatu eta olioazko lanpara batek lagundurik zulo beltz hartara sartu ginen. Momentu batean iluntasunak irentsi gintuen. Uraren tanta jarioaren hotsa eta gure bihotzeko taupadak besterik ez genituen entzuten. Hezea zen leku hura eta kiratsa zerion, balearen bihotza gertu genuenaren seinale. Bat batean, haize korronte fin batek olio lanparak itzali eta....Ziztu bizian atera ginen handik,...iluntasun haren erdian itsu eta norabiderik gabe.

Irteera zalapartatsu horretan, aldareko mahai gainean zeuden kalizak, atrilak eta bestelako gauzak lurrera erori ziren, bai eta San Antonioren irudia ere...Hura triskantza hura!

Egun gutxira Don Julian apaiza etorri zen etxera (bai eta nire lagunak etxera ere), olio lanparak bueltatu eta, bide batez hautsitako gauzak konpontzeko diruaren eske.

Gertakari hark argi baino argiago utzi zion aitari haren osaba apaizak proposatutakoa. Ezinbestekoa zen hortaz, ni herritxo hartatik atera eta Bilboko Salesiarren eskolara bidaltzea.

“Salesiarren ikastetxean, apaizekin...? Eta hemendik kanpo?” Hura bai hura ikasturte tristea izango zena hurrengo urtekoa....

Nik bera bezalakoa izan nahi nuela adierazi nahi nion aitari: arrantzalea izan nahi nuen, itsasontzi bateko patroiz izanik, Terranobako lurraldeetan baleak arrantzatu...Baina ez nintzen ausartu.

Uda hasierako egunak Bilbotik herrira bueltaka pasa genituen, uniforme probatzen (galtza motzetako uniforme, ni naizen kankailuarekin), materiala erosten eta ikastetxeko zenbait Salesiarrekin elkarriketetan. Maleta berri bat ere erosi zidaten, nik aukeratu nuen... garestiena!!!

Baina istant batean, gure herria buruz behera jarriko zuen zerbait gertatu zen, herria tristuraz eta arrain ustel usainaz beteko zuena .

Uztailaren 12a zen egun hura. Gaueko hamarretan aita gure logelara etorri zen eta muxu bana eman zigun. Atuna arrantzatze garaia hasi berria zen eta hamar egun luze pasako zituen aitak itsas zabalean “Pantxiku” itsasontzian. Ohituta geunden guztiak bizitza honetara...Baina tristemak ziren agur hauek.

Betiko kolonia zeraman gainean, labanda kolonia (bere iritziz arrain usaina gehien ezkututzen zuen kolonia hauxe baitzen).

Lo hartu genuen...

Kanpai hots ezezagun batek esnatu gintuen. Eguna argitu gabe zegoen oraindik. Erdi lotan ganbarara igo nintzen eta amamak behin eta berriz esandakoa gogoratu nuen: “Seinale ona da kanpai doinu errepikakorra ez entzutea...”.

- Itsas enbata Kantaurian! Ontziak balantzaka sartu dira itsas ertzer, baina itsasoa infernu gobernagaitz bilakatu da... Gure gizonak infernu horretan dabilta!- Oihu egiten zuen gizon batek etxeko atarian besoak zerurantz jasotzen zituen bitartean.

Sukaldera sartu eta amama inoiz baino zaharragoa ikusi nuen. Errosario bat zeukan esku artean

- Itsaso madarikatua, itsaso madarikatua!..- errepikatzen zuen burumakur.

Kairantz abiatu ginen nire anaia eta ni. Hantxe zegoen gure ama, itsaso zakarrari begira.

Itsasoa hautsita ikusten zen urrunean eta olatuak izugarriak ziren, haizeak zurrunbiloak eragiten zituen itsas azalean eta tximistek munstro baten besoen antzera zeru guztia zeharkatzen zuten eta argitu.

Hiru itsasontzik lortu zuten nekez portura iristea. Bertan emakumeak (gure ama barne) zain zeuden, irrikaz, berrien zain:

- Ba al dakizue zer edo zer “Pantxikuz”? Gauean irten dira, Bizkaian beharko lukete...- galdetu zien amak negar zotinka.

- Ez “Pantxiku”z ez, “San Roque” eta “ San Juan” ezta ere. Ez dakigu ezer; bat batean harrapatu ditu itsas enbatak. Guk sotoa atunez beteta genekarren eta pisuak lagundu egin digu itsasontzia gobernatzen...Besteak itsasoak irentsi ditu.

Tristuraz, tentsioz, baina esperantzaz beteriko eguna izan zen hura arrantzaleen familientzat.

Karmeneko Amabirjinari hamaika bat errezo egin nion nire aita buelta zedin...,baina orduak pasa ahala gure esperantza txikituz eta tristura handituz zihoan.

-“Pantxiku” ko hiru gizon dakartza “Maritxu” itsasontziak...!!!! Dirudienez olatu batek buruz behera jarri du, baina beste olatu kolpe batek buelta eman dio berriro eta ...soka baten laguntzaz “Maritxura” igotzea lortu dute – entzun nuen.

Hurrengo irudia amaren eta aitaren arteko besarkada izan zen, amaren malkoak aitaren aurpegiko gatzarekin nahastu ziren. Korrika batean haiengana hurbildu eta amak bezala aita besarkatu nuen. Ez zuen labanda usainik, ezaguna zitzaidan usaina baizik: kresalaren usaina.

Egun hartako itsas enbatak nire herriko hogeita bi arrantzale eramán zituen berarekin, baina arrantzale horien anima bizirik dago oraindik.